

KEZKAMUXELAK

Testua eta irudiak: ANTHONY BROWNE

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Kartoi gogorrean koadernatua. 25 x 27 cm. 32 or. 15 €.

Kezkamuxelak (euskara)

ISBN 978-84-9172-018-8. Gaur egungo klasikoak.

Sacapenas (galegoa)

ISBN 978-84-8464-585-6. Tras os montes.

Menjacabòries (katalana)

ISBN 978-84-8464-707-2. Clàssics contemporanis.

As preocupações do Billy (portugesara)


ISBN 978-972-8781-49-1. Clássicos contemporâneos.

*Ibai beti dago kezkatzen. Kapeluek eta zapatek kezkatzen dute.
Hala berean kezkatzen dute hodeiek, euriak eta txori
erraldoiek. Bere amona ere, neskatoa zelarik, kezka batean bizi
zen, horregatik daki nola lagundu behar dion bilobari.*

Beste kultura baten atea zabaltzen dizkigun sinboloa dira
"Kezkamuxelak" izeneko mamuxela edo panpina bereziak.
Aspaldi du Guatemalako haurrek panpinok egiten dituztela
txotzez, zatartxo eta hariz; lotarakoan beren kezka kontatzen
dizkiete eta burukoaren azpian uzten dituzte, biharamunean
kezkarik gabe jaiki ahal izateko.

Anthony Brownek misterioz beteriko ipuina osatu du, giro
harrigarri hori indartzen duten irudiak dituela lagungarri.
Tentsio-uneak kolorearen arabera daude mailakatuak: Ibairen
kezkaldiak grisean daude emanak, beldur giroa nabarmenduz;
aitzitik, kolorez gainezka datoz beste orrialdeak,
"kezkamuxelak" ageri direnak bereziki, mamuxela edo panpina
hauen eragin onuragarria adieraziz.

Anthony Browneren estiloak irudien errealismoa eta gizakia
itxuratzen duen xehetasuna ditu ezaugarri: aieruen marrak,
azalaren zimurrak. Ibairen bizitzako atseginaldiak famiartean
gertatzen dira, giro lasaigarria emanez. Alabaina, kezkek hartua
dutenean, amets, eldarnio eta jatorri surrealista formak ageri
dira. Amonak emango dio Ibairi ezinegon eta nahigabe horren
sendagarria.



■ **Gaia:** haurren kezka eta izuak uxatzeko sendagarria.

■ **Adin egokia:** 4 urtetik goiti.

■ **Nabarmenezko modukoak:**

'kezkamuxelak' izeneko mamuxela edo panpinen jatorria, irudi errealista eta osagarri errealista eta iirudimenezkoen nahastea; baloreen heziketa lantzen duen "Urdaburutarrak" ipuinaren ondoren, "Kezkamuxelak" honek izuei eta kezkei aurre egiteko behar den kemena dauka langai; "Basoan barrena", "Osteratxo bat parkean", "Nola sentitzen zara?", "Gorila bat. Zenbatzeko liburua".

Anthony Browne

(Sheffield, Ingalaterra, 1946)

Leeds College of Art-en egin zituen ikasketak, eta diseinu grafikoan trebatu zen. Gizakia irudikatze daukan perfekzio-beharrak Manchester-en etorri zitzaion, bertako ospital batean osasun gaien marrazkilari gisa ibili zenean. Geroago hasi zen haurrentzako ipuinak sortzen eta apaintzen, zorian postalak margotzeari ekin zionetik. Browne-ren estiloan margolari surrealisten eragina atzeman liteke, eta maite ditu gertaldi onirikoak eta osagarri bitxiak. Bere ibilbidean jaso dituen sarien artean Kate Greenaway domina eta Kurt Maschler saria aipa litezke, baina oroz gain nabarmenezkoa da 2.000 urteko Hans Christian Andersen saria, bere obra osoarengatik. Sari hau irabazitako aurreragoko britaniarrak 1956an jaso zuen. Hizkera plastikoarekiko loturak eta ikusi eta irakur-tzeko molde berriak saiatu dituzten egile ingelesetan ezagunenetakoa da. Adibide bikainak dira *Gorila*, *Urdaburutarrak* (Kalandrakak argitaratua euskaraz, galegoz eta portugesez), *Aldaketak*, *Tunela*, *Zoologikoa* eta *Willy* saila. Kritikok diote Browne-ren lanak lotura kultural eta artistikoz beteriko mudua sortzen duela, testua osatzeko eta interpretatzeko irakurlearen inteligentzia zorrotzen dituzten arrasto eta gako bisualak eskaintzen dituela, adina kontuan hartu gabe.

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela.com
etxea
soltxate@pamiela.com